



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Gazte euskaldunen hizkuntza
praktikak eta ideologiak bariazioan
Gasteizko campusean: hizkuntza
sozializazioaren eraginaren
azterketa**

Diego Pallés

187-194 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.23>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Gazte euskaldunen hizkuntza praktikak eta ideologiak bariazioan Gasteizko campusean: hizkuntza sozializazioaren eraginaren azterketa

Diego Pallés
UPV/EHU
dlapuenta002@ikasle.ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan Arabako campuseko ikasle euskaldunen hizkuntza sozializazioari buruzko ikerketa baten emaitzak aurkeztuko ditut. Profil soziolinguistiko desberdinak dituzten ikasleak bildu eta haien arteko sozializazioaren bidez euskararen erabilerarekin lotura handia duten bi alderditan aldaketarik gertatu ote den aztertu nahi izan da. Bi alderdiok hizkuntza praktikak eta hizkuntza ideologiak izan dira. Euskararen erabileraren aldeko aldaketa positiboak hauteman dira, baina zenbait jarrera oztopagarri ere identifikatu dira.

Hitz gakoak: hiztun berriak, hizkuntza praktikak, hizkuntza ideologiak, hizkuntza sozializazioa, unibertsitatea, Gasteiz.

Abstract

In this paper I present the results of a study on the language socialization of Basque-speaking students on the Araba/Álava campus. Students from different sociolinguistic profiles have been selected in order to determine whether language socialisation between them has resulted in changes in two aspects closely related to the use of Basque: language practices and language ideologies. Positive changes in those two aspects that reinforce the use of Basque have been noted, but some hindering attitudes have also been identified.

Keywords: new speakers, language practices, language ideologies, language socialisation, university, Vitoria-Gasteiz.

1. Sarrera eta motibazioa

Gasteizko egoera soziolinguistikoa sakonki aldatu da azken bost hamarkadetan. VII. Inkesta Soziolinguistikoaren (Eusko Jaurlaritzak, 2024) datuek erakusten dutenez, 2021ean gasteiztarren % 39,8k euskarazko hizkuntza gaitasunak dauzkate. Gazteak dira Araba osoko adin talderik euskaldunena: hamar arabar gaztetatik sei baino gehiago euskaldunak dira. Hazkunde hori gehienbat hezkuntza sistemari esker gertatu da; izan ere, Gasteizko euskaldunen % 68,2 hiztun berriak dira, hau da, euskara etxetik kanpo jaso dute. Errealitate hori Gasteizko kaleetako euskararen erabileraren datu apalekin batera aztertuz gero, ondoriozta daiteke Gasteizko hiztun berrietako askok ingurune akademiko formal batean gehienbat izaten dutela euskararekin harremana, eta ez esparru informaletan, adinkideen artean. Kale-Erabileraren Neurketaren arabera (Soziolinguistika Klusterra, 2022a), 2021eko kaleko elkarriketen % 4,1 bakarrik izan ziren euskaraz. Beraz, ikusitakoaren arabera, gazteen euskararen erabileraren gakoak aztertzea erronka garrantzitsua da euskararen biziberritze prozesuan. Gasteizen ez ezik, Euskal Herri osoan dauka garrantzia horrek (Amorrortu et al., 2017: 12).

Aldi berean, Gasteizen beste aldaketa soziolinguistiko nabarmen bat gertatu da azken hamarkadetan: hirian zenbait erakunde publiko garatu dira eta erakunde horietako euskararen erabilera hiriko kaleetako erabilera baino handiagoa da, indarrean dituzten dituzten hizkuntza-normalizaziorako politiken ondorioz. Erakunde horietako bat UPV/EHUko Arabako campusa da. Euskarazko irakaskuntza eskaintzeko betebeharrak edukitzeaz gain, UPV/EHUK Euskal Herri osoko ikasle euskaldunak Gasteizera erakartzen ditu. Bi berezitasun horiek, besteak beste, Arabako campusean euskararen erabilera informal handiagoa izatea ekarri dute: fakultateetako gune informaletan izandako elkarriketen hizkuntza neurtu denean, euskarazko elkarriketen ehunekoak % 41,1 - % 6,3 artekoak izan dira (Soziolinguistika Klusterra, 2021, 2022b). Datu horiek guztiak ikusita, Gasteizko (eta antzeko gune soziolinguistikoetako) hiztun berri gazteentzat campusa gazte euskaldun aktiboekin

harremanetan aritzeko bizitzako lehen aukera izan daitekeela ondoriozta daiteke. Gainera, harreman horiek sortzeko aukera euskara formalki zein informalki ingurune mesedegarri batean gertatzen da.

Beraz, profil soziolinguistiko desberdineko ikasleen arteko hizkuntza sozializazioa nolakoa den ikertzeak berebiziko interesa izan dezake gazteen artean euskararen erabilera sustatzearen erronkak hobeto ulertzeko. Campusean ikasketak burutu ondoren, nola aldatzen dira euskal hiztun gazteak hizkuntzari dagokionez? Profil desberdinak ezagutzeak erabilera sustatzeko aldaketarik sor dezake? Eta hala bada, nola?

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

2.1 Helburuak

Ikerlan honen helburua ondokoa izan da: Arabako campusean gradua euskaraz ikasi duten ikasleak identifikatzea eta karrerako urteetan zehar hizkuntza sozializazioak euskararen erabilera sozialarekin zerikusia duten hainbat ezaugarritan aldaketarik sortu duen ikertzea. Zehazki, euskararen erabilera sozialean eragiten duten lau ezaugarri hauek aztergai izan dira: hizkuntza praktikak, ideologiak, identitateak eta mudak. Artikulu honen mugak direla eta, hemen lehen bi ezaugarriak buruzko emaitzak bakarrik aurkeztuko ditut: hizkuntza praktikei eta ideologiei buruzkoak, alegia.

Ikerketa hau kualitatiboa da, ez kuantitatiboa. Beraz, ez du helburu campusean hizkuntza sozializazioaren bidez gertatzen diren prozesu nagusiak edo hedatuenak azaltzea, baizik eta prozesu horien artean euskararen biziberritze prozesuan esanguratsuak eta interesgarriak diren batzuk sakonki ulertzea. Prozesu arrakastatsuak zein arrakastarik gabekoak ikertu nahi dira.

2.2 Hizkuntza sozializazioa

Hizkuntza sozializazioaren ikermoldea izan da ezaugarri horien aldaketak aztertzeako erabili dutan oinarri teoriko nagusia. Sozializazioa, modu zabalean definitua, gizabanako batek komunitate jakin baten bizitza sozialean modu eraginkor eta egokian parte hartzea ahalbidetzen dioten ezagutzak, orientazioak, arauak, balio sozialak eta praktikak eskuratzeko prozesua da (Garrett & Baquedano-López, 2002: 339). Hizkuntza sozializazioaren ikuspegiak sozializazio prozesuak eta hizkuntza gaitasunen jabekuntza sakonki lotuta daudela proposatzen du (Ochs & Schieffelin, 1992: 276-277). Alegia, hiztunak hizkuntzaren bidez sozializatzen dira, eta sozializazioaren bidez hizkuntza erabiltzeko gaitasun gramatikal eta pragmatikoak eskuratzen dituzte.

Hortik abiatuta, ikerketa honetan honako hau proposatzen dut: unibertsitatean ikasleen arteko sozializazio prozesuak sortzearekin batera, haien artean hizkuntza erabiltzeko gaitasun berriak garatzeko eta eskuratzeko prozesuak ere sortzen dituzte. Campusean profil soziolinguistiko desberdinak elkartzeak elkarrengana egokitzeako hizkuntza sozializazioko prozesuak abiarazten ditu.

Hizkuntza sozializazioko prozesuetan kontuan izan behar dugu hizkuntza gaitasunak ez direla noranzko bakarrean transmititzen, hau da, komunikazioari buruzko ezagutza ez da transmititzen hizkuntzaren ezagutza handiagoa edo erabiltzeko erraztasun handiagoa duen hiztunarengandik hasiberria den hiztunarenganaino bakarrik. Aitzitik, hizkuntza sozializazioa aldebiko prozesua da, elkarrengandik. Partaide guztiak subjektu aktiboak dira eta elkarri eragiten diote. Areago, hizkuntza gaitasunen transmisioa baino, batzuetan arau kultural berriak ere sor daitezke (Ochs & Schieffelin, 1992: 311). Hori dela eta, unibertsitateko hizkuntza sozializazioak eragindako aldaketak ikertzean, profil soziolinguistiko desberdinekin harremanetan sartu diren ikasle guztiei erreparatu behar zaie, ez lagunartean euskara erabiltzen dutenei bakarrik, balizko aldaketak guztien kasuetan topa daitezke eta.

2.3 Aurrekariak: euskal hiztun gazteak aztergai

Euskararen erabileraren auzia hobeto ulertu nahian, azken urteetan euskal hiztun gazteen hizkuntza praktika eta ideologiak aztergai izan dituzten zenbait ikerketa egin dira. Jarraian lan hau osatzeko lagungarri izan diren ikerketa nagusien zenbait aurkikuntza aurkeztuko ditut.

Hizkuntza praktiken azterketan gazteek euskara non, noiz eta norekin erabiltzen duten jakin nahi da. Hernándezek eta bestek (2020) Gasteiz baino euskararen erabilera handiagoa duten herrietan

gazteekin egindako ikerketa hartan, familia eta eskolatik kanpoko euskarazko praktika kulturalak izatearen garrantzia azpimarratu zuten. Gazteek berezko aisialdi espazioak sortzea edo kudeatzea euskararen erabilera sustatzeko baliogarria dela ere ikusi zuten, horrek gazteei konfiantzazko harremanak eta hizkuntzak kudeatzeko baliabideak eta gaitasuna edukitzen laguntzen baitie.

Hiztun berri gazteen kasuan, Ortegak eta bestek (2016: 244-249) haiei buruz egindako ikerketan euskara erabiltzeko gehien baldintzatzen dituzten bost faktore identifikatu zituzten: (1) jabekuntza prozesuan euskara informala jasotzeko bidea ere edukitzea ala ez; (2) norberaren hizkuntza gaitasunen pertzepzio subjektiboa; (3) euskara erabiltzeko aukerak izatea, testuinguru soziolinguistikoa eta harreman sareen menpe dagoen faktorea; (4) kontzientzia eta jarrera (proaktiboa, erreaktiboa, aurkakoa...); eta (5) hizkuntza-identitatea, autokontzeptua edo zilegitasun-sentimendua. Faktore horien guztien artean kontzientziak berebiziko garrantzia dauka Gasteiz bezalako testuinguru oztopatzaileetako udalerrietan (biztanle euskaldunak % 30 baino gutxiago dutenetan). Horrelako testuinguruetan euskararen erabiltzaile aktiboa izateko hizkuntzaren egoera zaurgarriari buruzko kontzientzia hartzea ezinbestekoa dela ikusi zuten ikerlariek (Amorrortu et al., 2017: 45).

Kontzientzia hizkuntza ideologiekin estuki lotuta dago eta, horren ondorioz, ikerketa honetan ideologiei dagokien atalean aztertu dut. Hizkuntza ideologiak, Woolarden hitzetan (2012: 19), “hizkuntzaren eta giza taldeen arteko harremana interpretatzeko erabiltzen diren irudipen esplizitu zein implizituak dira”. Kontzientziaz gain, beste bi alderdi aztertu ditut hizkuntza ideologiaren kategoriatan. Lehengo alderdia *benetakotasunaren ideologia* da; ideologia horren arabera, hizkera molde batzuk kultura edo talde baten egiazko adierazpide hartzen dira eta, horrenbestez, balio edo zilegitasun handiagoa esleitzen zaie (Woolard, 2016: 22). Euskalkiek eta ahoskera molde tradizionalak euskara batua eta bestelako ahoskerek baino prestigio handiagoa jaso ohi dute benetakotasunaren ideologiaren ikuspuntutik. Bigarren alderdia beste hiztunak zuzentzeari buruzko iritzi eta ekintzak dira; jokaera *begiratze linguistikoa* esan zaie (Martín Rojo, 2022: 115) eta hiztunek besteen hizkuntza zilegitasunari buruz dituzten iritziak hobeto ulertzeko balio dute.

3. Ikerketaren muina

3.1 Parte hartzaileak

Ikerketa honetan Gasteizko campuseko lau ikaslek parte hartu dute. Laurek ondoko hiru ezaugarri hauek partekatu dituzte. Lehenik, (i) ikerketa egiteko unea, graduiko ikasketetan bost urte jarraian eman dituzte eta bost urte horietan zehar Gasteizen bizi izan dira. Horrela ikasle giroan murgiltzeko eta bertan harreman berriak eraikitzeke urte nahikoak izan dituztela ziurtatu nahi izan dut. Bigarrenik, (ii) gradua euskaraz ikasi dute. Horren bidez gutxieneko euskarazko ezagutza maila izatea bermatu nahi izan dut, eta beste gazte euskaldunak ezagutu izana ere bai. Hirugarrenik, (iii) lau ikasleek euskara erabiltzearen aldeko jarrera dute eta laurek karrera euskaraz ikastea atseginez erabaki dute, ez ikuspuntu utilitarista batek motibatuta.

Bi profil soziolinguistikotako partaideak aukeratu ditut. Alde batetik, partaideetako bi Gasteiztik kanpo hazi dira, Gipuzkoako 3. gune soziolinguistikoko bi herritan (euskaldunak % 50-80) eta unibertsitatean hasi direnean bakarrik joan dira Gasteizera bizitzera. Horrez gain, euskara etxean zein eskolan jaso zuten eta Gasteizera etorri aurretik beren gertuko harreman gehienekin nagusiki euskara erabili dute. Ikerketan zehar sinplifikatzeko bi ikasle horien profilei *kanpotik etorriak* esan diet. Beste aldetik, gainerako bi ikasleek profilari *bertan haziak* izena eman diot: profil horretako gazteak bizitza osoan zehar Gasteizen bakarrik eskolatuak izan dira eta arlo akademikotik kanpo gaztelania bakarrik edo nagusiki erabili dute. Euskara eskolan bakarrik ikasi dute eta, beraz, hiztun berritzaile har daitezke. Partaideei testuan zehar erreferentzia egiteko, *kanpotik etorritakoentzat* K1 eta K2 deiturak erabili ditut, eta *bertan hazitakoentzat*, aldiz, B1 eta B2.

Ikerketa egiteko uneko mugak eta baldintzak zirela eta, aukeratu ditudan hiru partaide Euskal Ikasketetako graduiko ikasleak izan dira (K1, K2 eta B1); laugarrena, B2, Ingeniaritza Mekanikoa eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduiko ikaslea izan da. Horrek kontraste interesgarria eskaini du, Letren Fakultateak eta Gasteizko Ingeniaritza Eskolak hurrenez hurren euskararen erabilera informalaren ehuneko altuena (% 41,1) eta baxuena (% 6,3) dauzkatelako (Soziolinguistika

Klusterre, 2021, 2022b). Gainera, espero daiteke estatistikoki errazagoa izango dela euskararen erabileraren aldeko ikasleak Euskal Ikasketetako graduan topatzea Letren Fakultateko beste graduatan baino. Ikerketaren asmoa ez da campuseko ikasleen batez besteko profil soziolinguistikoaren analisia egitea, baizik eta campuseko hizkuntza sozializazioaren eraginaren analisiari lehen hurbilketa egitea, etorkizuneko ikerketatan analisi horretan gehiago sakontzeko asmoz. Horregatik, hasiera honetan, bi muturretako ikasleak aukeratzea aukera egokitzat hartu dut. Partaideak biltzeko campusean jarritako iragarkiak eta “elur-bolaren metodoa” erabili dira.

3.2 Metodologia

Ikerketan bildu ditudan datuak kualitatiboak eta aitortuak dira. Datuak biltzeko bi tresna hauek erabili ditut: eztabaida talde bat eta bi elkarrizketa erdi gidatu. Saio guztiak grabatu dira eta, ondoren, grabazioak transkribatu egin dira. Transkripzio horiek analizatuz atera ditut ikerketaren emaitzak.

Eztabaida taldeek eskaintzen dituzten bi onura aipatu nahi ditut: batetik, parte-hartzaileek elkarlanean aritzean, iritzi dibertsoak azaleratu ditzakete eta horrela ideia berriak eraikitzeak aukera suerta daiteke (Ortega et al., 2016: 22); bestetik, ikertzaileak proposatutako gaiak ez ezik, parte-hartzaileek beraientzat garrantzitsuak diren beste gaiak ere aipa ditzakete. Eztabaida taldean ikerketako lau gazteek parte hartu dute; alegia, *kanpotik etorriak* eta *bertan haziak* proportzio berean egon dira, eta, beraz, baita euskal hiztun natiboak eta berriak ere.

Banakako elkarrizketa erdi gidatuak tresna osagarri gisa erabili ditut. Ortegari eta besteri (2016: 23) jarraituz, elkarrizketek funtzio bikoitza izan dute: batetik, eztabaida taldeetan sortutako gai interesgarrietan sakontzea; eta bestetik, hiztun jakin batzuen datuetan gehiago arakatzea, berebiziko interesa eskaintzen dutelako. Horrez gain, Gonzálezek eta bestek (2014: 23) aipatzen digute banakako elkarrizketetan zenbaitetan errazagoa izan daitekeela publikoki aurkeztu nahiago ez diren diskurtsoak azaleratzea, eztabaida taldeetan ez bezala. Guzira, bi elkarrizketa erdi-gidatu egin ditut: bat *kanpotik etorritako* ikasle bati, eta bestea *bertan hazitako* bati.

3.3 Emaitzak: hizkuntza praktikak

Hizkuntza praktikak aztertzean, lau gazteek euskara non, noiz eta norekin erabiltzen duten jakin nahi izan dut. Campus barruko zein kanpoko hizkuntza praktikei erreparatu diet. Campus barruko harremanei dagokienez, karrerako lehen urtean lehen harremanak egiteko guztiek joera bera izan dute: antzeko profil soziolinguistikoa zuten gazteekin elkartzea. Talde homogeenak izateak unibertsitate aurreko hizkuntza ohiturei eustea ahalbidetu die; esaterako, Euskal Ikasketetan gaztelania hutsean aritzen zen taldea sortu zen, eta haiekin elkartu zen B1 ikaslea. Lehen harremanak modu horretan sortu ondoren, hiru jokaera mota garatu dira. Alde batetik, (a) K1ek eta K2k karrera osoan zehar beren profileko ikasleek osatutako lagun taldea bakarrik izatea lortu dute eta, beraz, lagunartean euskara bakarrik erabili dute. Beste aldetik, (b) B1ek urteak igaro ahala bere profil bereko ikaskideak galdu ditu (irakasgaiak errepikatu behar izan baitituzte), eta horren ondorioz, gela barruan K1 eta K2ren taldearekin bat egin du. Hori dela eta, campuseko lagunekin gaztelania hutsean aritzetik euskara bakarrik erabiltzera igaro da. Azkenik, (c) B2k bi profiletako ikasleekin talde mistoa osatu du, baina bertan *kanpotik etorritakoak* gutxiengoak izan dira, eta, gehiengoaren ohitura arau bihurtuta, taldean aritzeko hizkuntza bakarra gaztelania izan da.

Ikasleek aurreko jokaerei buruz ondoko hiru balorazio mota adierazi dituzte. Alde batetik, (a) K1ek eta K2k *bertan hazitako* gazte gutxi ezagutu izanagatik pena eta ardura adierazi dituzte, gasteiztarrak ezagutzeko aukera bat galdu dutela uste dute. Bestetik, (b) B1 oso pozik dago bizitzan lehen aldiz euskaraz diharduen lagun talde handia izan duelako eta hizkuntza ordu luzeetan erabiltzeko giro informala topatu duelako. Gaztelania bakarrik erabiltzen zuten ikaskideekin egoteko aukera galdu zuelako kontent da, egoera horrek euskara hutsezko taldera eraman baitzuen. Azkenik, (c) B2 partaideak pozik dago euskarazko ikasketak egin izanagatik, lagun onak irabazteaz gain, bere euskara gaitasunak ez galtzeko balio izan baitio, eta euskarari eta Euskal Herriari buruzko gauza asko ikasi baititu. Baina ez dago bereziki arduratuta lagunartean euskara erabili ez izanagatik, ezta ikaskideak gaztelania erabiltzera bultzatzeagatik ere. Euskaraz ez egiteagatik bere burua nolabait kritikatu badu ere, ez du aldatzeko proposamen sendorik inoiz hartu.

Campus barruan nolabaiteko profil nahasketa gertatu den arren, campusetik at karrera aurreko harremanen eraginez talde homogeenak nagusitu dira. B1ek eta B2k, gasteiztarrek izanda, beren aisialdiko une gehienak institutu garaiko lagun kuadrillekin eman dute, eta haiekin gaztelaniaz bakarrik aritu dira, ohi legez. K1ek eta K2k, berriz, karreran izandako ikaskide batzuk aurretik ere ezagutzen zituzten, profil soziolinguistiko berekoak, eta aisialdian haiekin batez ere elkartu dira. Beraz, bi taldeen kasuan ez da campusetik at profil desberdinen arteko hizkuntza sozializazio handirik garatu. B2 partaideak behin bakarrik erabili du euskara lagunartean: karrerako lagun batekin Lekeitioko jaietan egon zenekoa, jai giroan hango gazteez inguratuta, bere profil bereko hiztunik gabe. Muturreko egoera batean bakarrik, beraz.

Hizkuntza praktiken azterketa honetan hiri-geografiari ere erreparatu diot. Ikerketa honetako bi profil soziolinguistikoek nahiko aisialdi segregatua izan dute, bai espazioan, baita denboran ere. *Bertan hazitako* eta *kanpotik etorritako* gazteak gehienbat hiriko leku desberdinetan ibili direla ikusi dut, eta leku beretan egon direnean ere egutegi desberdinetan izan ohi da. *Bertan hazitako* ikasleek bi aisialdi eskualde aipatu dituzte: auzo periferikoak, astegunetan, eta Alde Zaharra, asteburuetan. Bietan erabili duten hizkuntza bakarra gaztelania da. *Kanpotik etorritako* ikasleek, aldiz, Alde Zaharra izan dute aisialdi auzo bakarra, eta hara astegunetan batez ere joan direla adierazi dute; noizbehinka, asteburuetan ere bai. Han euskaraz bakarrik aritu dira. Bi profiletako gazteen arteko bereizketa hori hirian joera hedatua dela adierazi dute partaideek: haien esperientzian, Alde Zaharra astegunetan euskaldunagoa nabaritu dute, eta asteburuetan, berriz, erdaldunagoa. Gutxitan egon dira Alde Zaharrean beste profileko gazteen jai egunetan, eta hala egin dutenean jendartean ohiz kanpoko aurpegi eta hizkuntzaren erabilera nabari ohi dituztela kontatu dute. Segregazio edo bereizketa hori diskoteketan ere gertatu dela azaldu dute: partaideek aipatutako Gasteizko diskoteka jakin bat *kanpotik etorritako* ikasleekin lotzen omen da, eta, beraz, euskararen erabilera handiagoarekin ere bai.

Jai giroan ez ezik, aisialdiko beste ekimenetan ere ikusi dut bereizketa hori. *Kanpotik etorritako* partaideek beraiek antolatutako euskarazko ekimenetan ere *bertan hazitako* profileko gazteen falta igarri dute. Aipatutako ekimen autogestionatuak tabernetako bertso saio informalak eta LGBT topaketa politikoak izan dira.

Azkenik, auzoetako denda eta tabernetako hizkuntza praktikak aipatuko ditut. Leku horietan, *bertan hazitako* partaideek gaztelania bakarrik erabiltzen dutela adierazi dute. Euskara erabiltzeko ingurune mesedegarriago sumatzen dituen herrietan dagoenean, orduan bai lehen hitza euskaraz esaten du B1ek; ez, ordea, Gasteizen. *Kanpotik etorritako* partaideek, aldiz, gehien-gehienetan lehen hitza euskaraz esateko konpromisoa hartzen dute, eta horren bidez uste ez zuten Gasteizko denda eta taberna askotan euskarazko interakzioak izatea lortu dute. Geroago azalduko dudanez, praktika horren bidez hiriko hizkuntza egoerari buruzko kontzientzia xeheagoa eta zabalagoa lortu dute. Aurreiritziak deseraikitze eta jarrera proaktiboaren onurez jabetzeko balio izan die.

3.4 Emaizak: hizkuntza ideologiak

Benetakotasunaren ideologiaren azterketan, lehen aipatu dudanez, euskalkiei Gasteizko hizkeren kaltetan ematen zaien prestigioari erreparatu diot.

Euskalkien eta batuaren gaiari buruz, *bertan hazitako* gazteen artean, B2k ezaxola eta ezjakintasuna adierazi ditu. B1ak, ordea, euskara batuarekiko atxikimendua dauka, Gasteizko aldaeratzat hartzeagatik. *Kanpotik etorritako* bi gazteek prest agertzen dira euskara batua gasteiztarrekin testuinguru informalean erabiltzeko, horrek komunikazioa erraztuko duela uste duten kasuetan. Batua Gasteizko hiztunekin gertutasuna lortzeko erabiltzen dute.

Erregistro informalak erabiltzeak garrantzia handia izan dezake hiztun berri gazteen zilegitasuna eraikitze orduan (Ortega et al., 2016: 222). Hala ere, gure elkarrizketetan ez da lagunarteko erregistroen gaia behin ere aipatu. Lau partaideek nahiko hizkera informala erabili dute, eta hein handi batean informaltasun hori gaztelaniaren erabileraren bidez lortzen dute, bakoitzak neurri desberdinetan. Tartekatzen duten gaztelania mota hori gazte hizkera informalarik dagokio eta kalkoen eta kode alternantziaren bidez azaleratu da euskarazko jardunean. Denak gaztelania informal horretan ondo moldatzen direnez, gaitasun horrek guztiei hizkera informala izateko aukera ematen die.

Emaitza horiek guztiak ikusi eta gero, ez dut elkarrizketatutako lau gazteen artean benetakotasunaren ideologiaren zantzu nabarmenik ikusi, kontrakoa baizik: Gasteizko bizipenek aurretik zeukaten ideologia hori baliogabetu diete *kanpotik etorritako* gazteei.

Beste hiztunen zuzentasunari buruzko iritziak ere (alegia, *begiratze linguistikoarekin* lotutako ideiak) hiztun zilegitasunari buruzko ideologiaren adierazle izan daitezke. *Bertan hazitako* ikasleen artean, B1 partaideak Euskal Ikasketetako gradua egin bitartean Gasteizko euskararen egoera zaurgarriaren kontzientzia hartu du, eta horrek *bertan hazitako* beste hiztunen aurrean askoz jokaera malguagoa izatera eraman du akatsei dagokienez. Horrez gain, B1 behin ohartu zen *kanpotik etorritako* ikaskide batzuek atzetik barre egiten ziotela, eta bizipen mingarri horrek ere zailtasunak dituen hiztunarenganako enpatia lehenestera eraman du, haiek euskara erabiltzeari ez diezaioten utz. B2 partaideak, aldiz, txantxa giroan ikaskide hiztun natiboen iruzkinak jaso ditu, bere euskararen kalitatea baxua delakoan, baina horrelako txantxei garrantzirik ematen ez diela adierazi du.

Kanpotik etorritako ikasleak garbizalekeriaren aurka esplizituki azaldu dira. Azken lau urteetan gasteiztar euskal hiztunak ezagutu izana gaiari buruz zeukaten iritzia erabat aldatzeko balio izan zaiela adierazi dute. K1 eta K2 partaideek Gasteizen euskara irakasle lan egiteko asmoa daukate etorkizunean eta euskara hirian sustatzeko bertako hiztunen hizkeren ezaugarriak onartzea ezinbestekotzat jotzen dute. K1ek kontatu duenez, azken urteetan campusean bakarrik euskara erabiltzeko aukera duten ikaskideak ezagutu ditu. Aurkikuntza horrek txunditu egin du partaidea, eta horren ondorioz, besteen zuzentasunari buruzko iritzia zeharo aldatzea erabaki du: haiekin izandako solasetan zuzentasun gramatikalari askoz garrantzia txikiagoa ematea erabaki du hiztun berri horiek eroso sentiarazi daitezela, horrela etorkizunean euskara erabiltzea esperientzia onekin lotuko duten itxaropenarekin. Iritzi aldaketa hori bere herritik atera izanarekin eta hiztun profil berrietako hiztunak ezagutzearekin lotu du, baita karrera bitartean ikaskideekin gaiari buruz eztabaidatzearekin ere.

Euskararen egoerari buruzko kontzientziak eragin handia izan du partaideen hizkuntza ideologiak birpentsatzeko orduan. Euskararen egoerari buruz duten iritzia eskatu diedanean, lehenik eta behin hiztun gazteei buruzko ikuspegi kritikoa adierazi dute partaideek. K1en iritziz, bere herriko gazteen artean ondoko profila ohikoa da hizkuntza kontzientziari dagokionez: euskararekiko atxikimendu emozional eta politiko handia erakusten duten gazteak, baina “ez dutenak euskaraz egin nahi” (Pallés, 2024: 76). Horrez gain, beste gazte mota hau ere herrian sarri ikusten duela salatu du: euskara etxean edo lagunartean inoiz erabili ez, baina herriko euskalkia ezagutzeagatik euskalkirik gabeko hiztun berriei zilegitasuna kentzen eta haiekiko nagusitasuna sentitzen duten gazteak. Bere Gipuzkoako herriko gazteen artean ikusitako bi joera horiek Gasteizen ezagutu dituen hiztun berri gazte askoren jokaerarekin alderatu du azken urteetan: soziolinguistikoki testuinguru oztopatzailea eduki arren eta hizkuntza gaitasun urriak eduki arren campusean euskara erabiltzeko aukerak aprobetxatzen dituzten gazteen ereduarekin.

Bertan hazitako bi ikasleek, aldiz, inguruan dituen gasteiztar gazteen hizkuntza kontzientzia kritikatu dute, eta hein batean kritikatzeko duen taldean bere burua ere kokatu dute. Euskararen aldeko ekintza publikoetan parte hartzen dutenean ere (Korrika eta Alavéseko zaleen taldeko ekintzak aipatu dituzte), taldeko hizkuntza bakarra gaztelania dela penaz aitortu dute. Egoera horren aurrean indarge sentitzen dira, euskara erabiltzearekiko konpromiso falta hori hiri osoaren izaeraren partetzat hartzen baitute. Honelako adierazpenak askotan agertu dira: “Gasteizkoak gara ia gehienak horrela. Ni gogoratzen naiz, hori, ‘euskara bihotzean eta erdara ezpainetan’”, “Gasteizkoak [...] ez dugu ohitura euskaraz hitz egiten, eta ez dakigu ondo hitz egiten” (Pallés, 2024: 77-78).

Hala eta guztiz ere, iritzi horri aurre egiten dioten bizipen berriak ere izan dituzte azken urteetan *bertan hazitako* bi ikasleek. B1 partaideak Euskal Ikasketetako ikaskideei esker lagunartean euskaraz egiteko aukera izan du lehen aldiz, arestian aipatu dudanez. Gasteizen bizi eta euskara erabiltzen duten adinkideak ezagutu ditu, eta, are gehiago, bera haietako bat izan da campuseko lagunekin egon den bitartean. Horrez gain, gazte haiekin izan dituen eztabaidek eta gogoetek euskara erabiltzeko egin behar diren ahaleginen kontzientzia eman diete, baita ahalegin horiek egiteko motibazioa ere. Ikerketa hau egiteko unean, B1 partaidea bere lanpostuan bezeroekin eta lankideekin bere ekimenez euskara erabiltzen hasi da. Beste hitzetan, *hizkuntza muda* bat egin du (ikus González et al., 2014: 41).

Unibertsitatean hasi aurretik, B2 partaideak oso kontzientzia txikia zeukan euskararen egoerari buruz. Ez zuen Gasteiz euskalduna ezagutzen: “Hemen eta Gasteiztik behera joaten bazara, [...] inork ez du erabiltzen egunero” (Pallés, 2024: 78). Orain, bost urtetan zehar tabernetako eta jai herrikoetako giroa ezagutu ondoren, hirian euskara “sustatzen ari dela” nabaritzen hasi da. Hala ere, bere kontzientzia ez da asko aldatu; azken finean, unibertsitate garaian euskara aktiboki erabiltzen duten gazteekin harremana izan du, bai, baina gazte horiek ez dira Gasteizen hazitakoak izan, eta, beraz, ez du aurretik sortu duen Gasteizko euskal hiztun gaztearen irudi zaharra aldatu. Berak ere ez du euskara lagunartean erabili. Oraindik beste bizipen eta sozializazio ingurune berriak beharko ditu pertzepzio zaharrak sakonki aldatzeko eta Gasteizko euskal komunitatearen egoera ezagutzeko.

Kanpotik etorritako partaideek ere aldatu dute Gasteizko euskararen egoerari buruz duten iritzia azken bost urteetan, baina beren iritzi berria *bertan hazitako*en iritzia baino positiboagoa da. Praktiken analisisan adierazi bezala, euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa eduki izanak (adibidez, lehen hitza euskaraz esatearen bidez) Gasteizko euskararen egoeraren irudi xeheago eta osoagoa eman die. Ikerketako solasaldietan adierazi dutenez, unibertsitatean hasi aurretik Gasteizera etorri izan balira, pentsatuko zuketena “hemen euskaraz oso jende gutxi dakiela, ez daukala gogorik” (Pallés, 2024: 78). Bost urte igaro ondoren, ordea, hiriko euskal hiztunen kopurua uste baino handiagoa dela ikusi dute, eta gainera egoera positibo hori ahalegin kolektibo baten emaitza denez, beraiek ere beren alea jarri nahi dute.

Politizazio hitza ere aipatu dute *kanpotik etorritako* partaideek hizkuntza kontzientziari buruz hitz egin dugunean. Euskararen egoera prekarioa norbanakoaren konpromiso ezari bakarrik egotzi beharrean (*bertan hazitako* partaideek adierazi bezala), Euskal Herriak bizi duen une sozial, politiko eta ekonomikoari leporatzen diote egoera hori. Euskararen hizkuntza komunitateak bizi duen zapalkuntza egoerari aurre egitea *borroka* gisa ikusten dute eta beste borroka politikoekin lotu dute: “Nik ulertu dudanean borroka ekologista, borroka transfeminista, borroka queer eta borroka antikapitalista, pues ulertu dut edo kokatu naiz euskararen aldeko borrokan” (Pallés, 2024: 80).

4. Ondorioak

Ikerketa honetan Gasteizko campuseko euskarazko hizkuntza sozializazioaren eragina aztertzeke lehen hurbilketa egin dut. Hirian bizi eta campusean ikasi duten gazteek bost urteetan zehar nolako euskarazko hizkuntza praktikak eta ideologiak garatu dituzten aztertu dut.

Hizkuntza praktikei dagokionez, harreman sareak profil soziolinguistiko bereko gazteen artean eratzeke joera handia dagoela ikusi dut. Karrera aurreko ohiturak, joerak eta aurreiritziak apurtzea oso zaila dela ikusi dut, baina apurtu diren kasuetan, euskararen erabileraren aldeko emaitzak agertu dira. Hiztun berriek bi baldintza hauek aldi berean elkartu direnean bakarrik erabili dute euskara lagunartean: solaskideak euskara lehenesten duten hiztun natiboak izan direnean eta inguruan beste hiztun berririk egon ez denean. Euskaraz aritzeko hiri geografian erreparatzean, aztertu diren kanpotik etorritako ikasleek lehen hitz euskaraz hiri osoan zehar esaten ahalegindu direla ikusi dut, lehengo begirada batean euskararen erabilerarekin lotzen ez zituzten lekuetan ere. Jarrera proaktibo hori ez da ageri izan Gasteizen hazitako ikasleen artean, nahiz eta haietako batek goraipatu ere egin duen.

Hizkuntza ideologiaren azterketan hiru alderdi aztertu ditut. Lehenik, benetakotasunaren ideologiaren kasuan, aztertutako hiztun guztiek ideologia horren oinarriak baztertu zituzte profil desberdinetako hiztunekin harremanak izatearen ondorioz. Euskalki eta ahoskera tradizionaletatik aldentzen diren Gasteizko hizkerak balioan jarri zituzte, eta hiztun mota guztientzako begirunea lehenetsi dute euskara erabiltzearen aldeko giroa sustatzeko asmoz. Bigarrenik, begiratze linguistikoko praktikei dagokionez, antzeko moduan jokatu dute partaideek: solaskidearen euskara traketsa izanda ere, erabilerak bera zuzentasuna baino garrantzitsuagoa dela pentsatzera igaro dira partaideak. Azkenik, hizkuntza-kontzientziari dagokionez, lau gazteek kontzientzia maila desberdinak erakutsi zituzte. Euskararen egoera orokorrarekin denak kezkatuta agertu dira, eta beren adinkide ugariaren kontzientzia eta konpromiso faltak detektatzen zituztela adierazi dute. Gasteizko euskararen egoera aipatzean, ordea, gazteen artean iritzi desberdinak agertu dira. *Kanpotik etorritako* partaideen jarrera proaktiboak Gasteizko euskarazko giroa ezagutzen lagundu die, eta, horren ondorioz, hiriko euskararen egoerari buruzko irudi zehatzagoa lortu dute. Positiboki eragiteko aukerak daudela ikusi dute. *Bertan*

hazitakoek, ordea, ez dute euskara erabiltzeko estrategia hori eduki, eta, horrenbestez, horrek Gasteizko euskararen egoerari buruzko kontzientzia txikiagoa eta eta hiriko biziberritze ahaleginekin konpromiso ahulagoa adierazi dituzte. Azkenik, *kanpotik etorritako* partaideek kontzientzia sakonagoa garatzeaz gain, euskararen erabileraren gaia gatazka politiko, sozial eta ekonomikoekin ere lotzen hasi direla adierazi dute; *bertan hazitakoek*, aldiz, erabilera hautu pertsonal gisa bakarrik ikusten dute.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Campuseko euskarazko hizkuntza sozializazioa ikertzen jarraitzeko hurrengo urratsa lagina zabaltzea da. Batetik, bizipen mota gehiago bildu nahi ditut, esaterako, *kanpotik etorritakoen* artean euskara lagunartean utzi eta gaztelania erabiltzen hasi behar izan direnen bizipenak. Fakultate eta karrera gehiagoko ikasleak aztertzea ere komeni da, campuseko irudi zabalagoa osatzeko asmoz. Azkenik, campusetik at gazteen artean gertatzen denari ere begirada sakonagoa ematea onuragarria litzateke bai hiri geografian euskararen erabileraren indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko, baita profil desberdinetako gazteen sozializazio esparruak ere.

6. Erreferentziak

- Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 11-49.
- Eusko Jaurlaritzak. (2024). VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Garrett, P., Baquedano-López, P. (2002). Language Socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change. *Annual Review of Anthropology*, 31, 339-361.
- González, I., Pujolar, J., Font, A., Martínez, R. (2014). *Llengua i joves: usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana*. Generalitat de Catalunya.
- Hernández J. M., Beitia, I., Ozaita, J., Santamaria, A. (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kuantitatiboak*. Soziolinguistika Klusterra.
- Martín Rojo, L. (2022). Power and the role of language. In F. Brisard, P. Gras Manzano, M. Vandenbroucke (arg.), *Handbook of Pragmatics: 25th Annual Installment* (107-128. or.). John Benjamins Publishing Company.
- Ochs, E., Schieffelin, B. B. (1992). Language acquisition and socialization: three developmental stories and their implications. In R. A. Shweder & R. A. LeVine (arg.), *Culture Theory: Essays of Mind, Self and Emotion* (2. arg.) (276-320 or.). Cambridge University Press.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea.
- Pallés, D. (2024). *Gasteizko campuseko ikasle gazteen euskarazko hizkuntza-sozializazioa: praktikak, ideologiak, identitateak eta mudak* [Argitaratu gabeko master amaierako lana]. UPV/EHU.
- Soziolinguistika Klusterra. (2021). *UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntzaren erabileraren neurketa: praktika on gisa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Soziolinguistika Klusterra. (2022a). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Udalerrak, 2021. Gasteiz*. Soziolinguistika Klusterra. <https://infogram.com/gasteiz-aurkezpena-1h8n6m3ovy3jj4x>
- Soziolinguistika Klusterra. (2022b). *UPV/EHUko zenbait fakultatetan hizkuntzaren erabileraren neurketa: 2021-2022 ikasturtea*. Soziolinguistika Klusterra.
- Woolard, K. (2012). Las ideologías lingüísticas como campo de investigación. In B. Schieffelin, K. Woolard, P. Kroskrity (arg.), *Ideologías lingüísticas: práctica y teoría* (19-54. or.). Catarata.
- Woolard, K. (2016). *Singular and plural: ideologies of linguistic authority in 21st century Catalonia*. Oxford University Press.

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau UPV/EHUko Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterrean egindako master amaierako lanean oinarrituta dago (Pallés, 2024). Nire eskerrik beroenak lan horretan zuzendari aritu den Ibon Manterolari eskainitako laguntza eta aholku guztiagatik.